

# 74R

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

175n. Zenbakia Bagilla  
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**GAMARRA'KO UGER LEKUAK  
(GASTEIZ'EN)**

---

## EUSKALDUN BARRIENTZAT

---

MISTERIOXKO UGARTEA (Julio Verne)

LENENGO ZATIA

1- Goronbil batean lau gizon, mutil bat eta txakur bat egozan. Goronbilla itxas ganean ebillen.

"Ba doa gorantza" ? itandu eban Harding'ek "ez" erantzun eutson Spillet'ek, "beerantza doa, jausi egingo da".

"Bota itxasora ur zirristada bat" esan eban Harding'ek.

"Ez dogu urik geiago" erantzun eutson Spillet'ek.

"Orduan bota eizuz kanpora gauza guztiak" esan eban Harding'ek.

Esan ta egin: iskilluak, janaria, dirua... dan- dana bota eben. Eta goronbilla gorantza asi zan.



Goizeko seiretan izan zan ori. Ordu bi igaro dira. Orain zortzirak dira.

"Gorantza goaz?" itandu eban Harding'ek barriro be.

"Ez, beerantza goaz" erantzun eutson Spillet'ek, "itxasoraño jausiko gara"

"Saskia be askatu egin bearko dogu" esan eban Harding'ek. "Goazen goiko sarera eta bota daigun saskia l"

Lau gizonak, mutilla eta txakurra sarera igon eta saskia itxasora jausi zan. Goronbilla gorantza asi zan barriro.



Marraskilloak zuen laguntza bearko dau, bidean alperrik ez ibilteko

Zerk eroango gaitu urrutira?

## EGUNKARIA SORTZEN

I

Egunkaria sortzen kanpaina  
Asi da euskal lurrean,  
Euskera soillik egunkari bat  
Bertan zabaldu naiean.  
Utsune aundi bat nabaritzen  
Gendualako barnean;  
Borondaterik onenaz asko  
Orain dabilta lanean,  
Gure izkuntza edatu dadin  
Ego eta Iparrean.

II

Ez da izango gauza erreza  
Ezerezetik astea,  
Adobakiez beteta dagon  
Galtza bat ondo jostea.  
Euskalerrian zailla dalako  
Erria berdin jaztea;  
Naiz asmo onez aurretik izan  
Aterako dan ustea,  
Leku askotan sarri sortzen da  
Pentsatzen ez zen nastea.

III

Gau illunaren atzetik beti  
Egun argia sortzen da,  
Ur garden ona dasta nai degu  
Iturri onera joanda.  
Erriarentzat gauzik onena  
Plazaratzea bear da;  
Poztutzen gera egunkaria  
Ernari dala jakinda,  
Baiño kontuak ondo atera  
Ez dadian jaio ilda.

IV

Abegi onez egin dagian  
Mundu onetan sarrera,  
Esia kendu eta lan egin  
Desagun denok batera.  
Egunkaria izkuntz aldetik  
Al den garbien atera,  
Eldu gaitzean agintari-ta  
Arrotzeri esatera,  
Emen dezute letraz jarrita  
Erri baten izakera.

V

Egunkaria izan dedilla  
Giro berri bat sortzeko,  
Alkarrengandik urrun gaudenok  
Bere ondoan biltzeko.  
Aspalditikan degun ametsa  
Bein betirako lortzeko,  
Gorroto eta ikusi ezin  
Guztiak oinperatzeko,  
Gauza guztien gaiñetik ama  
Biotzetik maitatzeko.

VI

Sortzeko dagon lorea izan  
Dadin gure gogokoa,  
Lorategia jarri bear da  
Arantzarik gabekoa.  
Gogoan euki iragana-ta  
Ez aantzi gerokoa;  
Jantzi euskera garbi, ederrez,  
Eman gogotik beroa,  
Errian berriz berpiztuzeko  
Izkuntza biotzekoa.

VII

Erri batzuei jazo zaiena  
Ez dadin emen gertatu,  
Ama euskera gaixoarekin  
Gaitzean denok alkartu.  
Erru geienak geureak dira

Ez auzokorik epaitu;  
Alkarrentzako izan itzala  
Bide garbitik jokatu,  
Gero datorren belaunaldiak  
Ez gaitzan madarikatu.

VIII

Artu dezagun, guraso zarrek  
Utzi ziguten aria,  
Ama euskarak bizi naidu-ta  
Bultzatu egunkaria.  
Sortzetik bada ulert-erreza  
Errikoia ta garbia,  
Urtetan zear jasoko degu  
Gaurko lanaren saria,  
Lur mardulean erneko bait-da  
Ereiten gauden garia.

IX

Entzun dezagun mendi gaiñetik  
Oiuka dagon turruna,  
Jaio berria bizirik dala  
Kantuz esaten diguna.  
Egunsentia ba-dator eta  
Igesi doa illuna;  
Orain arteko gauzak joan dira  
Iritxi zaigu eguna,  
Euskal arnasa lau aizetara  
Zabaldu bear deguna.

X

O,Euskadiko gaztedi maite  
Begira nago zugana,  
Dakidalako aspalditikan  
Kezkati bizi zerana.  
Azken urtetan kanpotar asko  
Etorri arren gugana;  
Itzuli eta urbildu zaite  
Ama euskeraren gana,  
Besarka bidez lotu daitezcan  
Oraina ta iragana.

EUSKERA

## EUZKADI'N EUZKERAZ

Bosnia'tarrak Euzkadi'ra etorri eta erdera irakatsiko zitzaiera ez genun inola ere uste izango baña alaxe gertatu da. Ordizi, Eskoriatza ta Legazpi'ra etorri zaizkigu ta erdera irakatsiko zaie!

Azterketa egin bearra degu: Bear aña maite al degu Euzkera? Aal degun guzian erabiltzen al degu? Gure Izkuntza lantzen sayatzen al gera? Erbestekoak etorri ta gure izketa entzunda, Euzkadi'n ala España'ko edozein lurraldetan dirala uste izango al dute? Izkuntza galtzen ba'degu Euzkadi galdua dala ez astu. Guziok degu ba erantzukizuna arazo ontan.

Onetzaz gañera, atzerripetuai erdera irakasten be'diegu... Gureak egin du!  
Ondoren, Ordizi, Eskoriatze, ta Legazpi'ko Endoreai (Alcalde) bialitako

Agur Jauna:

Bosnia'tik Euzkadi'ra etorri zaizkigun erbesteratuak zuen Erria'n dituzutela jakin degu. Bijoakizue gure zorion-agurra.

Baña gure kezka azaldu nai dizuegu. Izparringian ikusi degunez gaztelera irakasteko asmoa da. Etzaigu au inola ere zuzena iruditzen.

Gaztelera al da gure Izkuntza? Gure Aberrian'n erbesteko izkuntza irakastea ondo iruditzen al zaizu?

Bukatzeko ona emen gure iradokia (sugerencia):  
Euzkera irakatsi, bai, baña EUZKERA JATORRA, ez orain, zoritxarrez, nagusitu zaigun "batua" izeneko ori.

ARZELUS'tar AMALE  
Lendakaria' k  
(ARBASOEN IZKUNTZA)

## LAUAXETA

Il-zorian egon  
lorerik ederrena  
mintzaireen artean;  
alde guztietatik  
etsaiak orroaka  
min gaiztoenean.

Gorrotoa ta irain  
itzez eta ezpataz  
nai zinduezan austu;  
zer zeunkan, euzkera,  
zergaitik nai eben, zu,  
erre oparitu...?

Egoera larria...i  
Gau baltzaren gaupean  
ba-dator izarra;  
garo usaia dakar  
argia ta suz jantzirik,  
Urkiagatarra.

Berezko doi ederrez  
mindu ziñan erriaz  
sorrera garbian;  
odola zeunkan lertzen  
amaren gal-zorian  
kateien azpian.

Oi, zeñen samiña dan  
ixildu ezindako  
amaren negarra...  
gizonak ama il nai...  
zuk, ezin etsi...  
barneko deadarra.

Ziñaren indar aundiz  
dana eskeini zeuntsan  
euskaldun lurrari;  
azur, mamin, odola,  
grñaz maite zenduan  
Aberri amari.

Euzkera zan zure itza,  
odolaren tantoka  
oguzi zenduna;  
beroa ta sendoa,  
biotzean zendukan  
bitxi bikaiñena.

Euskaldun egia  
odol biurtu jatzun  
izate guztian;  
euzkotar gogo zarra  
laba goritan zeunkan  
urtutzen bizian.

Martirien odola  
emon zeuntsan lurrari  
kristau argietan;  
Euzkadik maite zaitu  
eta Aitak onartu  
zorion baketan.

Zure Jeldar bideak  
argia zabaldu dau  
Mungia aldean;  
maisu artzen zaitugu  
izkuntza ta jakintzaz  
erritar bidean.

PAULIN

## BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

---

# EUSKERAZAINTZA

## (Sarrera-Itzaldia: Anastasio Arrinda)

---

Orrillaren 15'ean, Deba erri ederrean, EUSKERAZAINTZA'k Akademi-Batzar gogoangarria izan eban.

Kultur-Etxeko aretoa entzulez beterik agiri zan eta argazkilariak ugari, baita kutxatilletan berbak artzeko gertu egozanak be. Eta aurreko maian Euskerazaiñak izlariaren inguruan. Alkate jauna be an izan zan.

EUSKERAZAINTZA'ren lendakariak aurkezpen laburra egin eban, ekintza nondik norakoa zan eta izlaria ezaguna zala esanez. Itzaldia amaitu zanean, Augustin Zubikarai'k emon eutsan erantzuna.

Irugarrenez egiten dau EUSKERAZAINTZA'k olako akademi-ekiñaldia: Lenengoa Mungia'n izan zan, bigarrena Ondarroa'n eta orain emen.

### ZERTARAKO?

Irakurleak, bear ba'da, olakc zerbait itaunduko dabe: Zergaitik eta zertarako egiten dira olako ekiñaldiak?

Alde batetik, ori dalako Akademien oiturea.

Baiña oiturea izatea ez litzake naikoa, ba-dira oitura txarrak be, kendu-bearrekoak. Oitura au, ostera, oso ona ta egokia dala uste dogu.

Ekiñaldiak bakoitxa erri baten egiten dira eta orrellan erri aretan euskerea indartzeko bide izaten jakuz.

Gaiak sakonak diralako euskerea bera obeto ezagutzeko langutza emoten dauskue.

Azkenez beti izaten da gauza ona erritarrakaz alkarizketa ta artu-emonak izatea.

### ITZALDIAREN GAIA

Gure Anastasio Euskerazaiñak artu eban gaia guztiz egokia ta garrantzitsua izan zan: Euskerea ta euskaldunen kondaira.

Zeatz eta argi agertu ebazan izlariak guk euskaldunok inguruko erriakaz izan doguzan artu-emoak eta artu-emon orreik zelan agertzen ziran gure izkuntzaren barruan.

Dana ezin gogoratu dogun ezkerro, aundi-andia aita-tu dagigun: Aitz-zuloetan bizi zan gizonak bere oiturak

agertzen dauz lanabesen izenetan, esaterako aizkora, aizto ta olakoetan. Artzain-aroan abereen izenak agertzen jakuz, batzuk euskaldunak beste batzuk erbestetik artuak, Indoeuropearrakaz eta zeltakaz izandakoak, jantzi izenetan agertzen dira: Praka, gona ta abar, Erromatarrakaz izandako zer-ikusia aundia be itzetan agertzen da: Lurgintzan landaren izenak (kipula, pago, keriza) eta lege itzetan be bai: (parkatu, pake, lege...) eta ipuiñetan.

Itzaldi au astiro irakurri eta aztertu nai dauanak, EUSKERAZAINTZA aldizkarian aurkitu leike.

### IRAKASBIDEA

Anastasio Arrinda irakasle jatorra izan da, adibide argiakaz bere barrua agertzen dabenen artekoa.

Ez jaku sekula aitzuko zelako egokitasunaz agertu eban RH-aren arazoa: edontzietan ur garbia ipiñi eta uretara margodun isurkia isuriten eban, orrellan odol-motak zeintzuk diran agertzeko.

### ZORIONAK ETA JARRAITU

Zorionik beroenak emon nai dautsaguz Anastasio Arrinda'ri bere itzaldi eder eta sakon onegaitik.

Jarraitu dagiala aurrerantzean be olako argibideak erriari emoten.



**Eusko Jaurlaritzaren  
Laguntzaz.**  
Kultura Saila

# DEUSTU UDALA ZAN

1924n. urtera arte bere mortasuna eukan Deustu'k, Bizkai'ko Jaunerriaren barruan, baiña Aro'ko Diego Lopez'ek sortu eban uriak, Abando beragandu-ondoren, ba-eukan guraria Deustu ta Begoña erriak beragatatzeko be.


Orrelan, Primo de Rivera bakar-agintari gogorraren aldian, 1924'an izenpetua izan zan dagonillaren 18'ko agirian kendu jaken erritxu onei euren nortasuana eta uri aundiagaz bat egin bear izan eben.

Aldi aretan Deustu'k, gitxi gorabera, 9.000 biztanle eukazan eta lurraren emoitzetatik ateraten eban bizia. Langintza be oso aurreratua zan.

Zori txarrez, Deustu'ko udalaren agiritegiak galdu egin ziran, ez guztiak, 1970'era artekoak biño, Urte onetatik aurrekoak ba-dagoz, baiña Karlos'tarren azkenengo gudea izan zan agiri areik ondatu ebazana.

Ba-dakigu, edozelan be, 1500n.urte inguruan 36 sendi-inguru zirala Gernika'ko batzarretara autarkia bialtzen ebenak. 1787'an Deustu'k 200 etxe eukazan, Goierrri ta Olabeaga'n. Goierrri'tik gitxiago ziran itxaslanetan ziarduenak, onein lana legorreko esku-lana zan. Olabeaga'koak jente geiago ziran eta geienak euskeraz egiten eben berba eta abere ta lurraren artean banatzen eben euren lana. Entzute aundikoak ziran ango porruak, berakatzak, tomateak, artoa, garia eta, batez be txakolin gorria. Orregaitik esaten eutsen, beste aldekoak, euskerarik ez ekienak: "Bajo las parras del Pueste Nuevo txakolin gorri suelen beber, buenas mozkorras suelen coger".

Deustu'ko askok euskera ekielako, eurentzat Bizkai'ko erriak begiko izaten ziran eta erriak be begirune bardiñagaz erantzuten eutsen. Olan Orozko'tik Deustu'ra etorri zan Letona'tar Bartolome agintari trebe ta zentzunduna ta euskeraz ondo ekiana. Onek Udaletxerako auteskundeetan alkate urten eban, eta ez bein bakarrik. Orain Abadeño'n bizi da 95 urteko abade anaia-gaz eta berak 90 urte ditu. Tiburtzi nire arrebeak diñoanez, Orozko-Aranguren eta Olarteko parroketan lau anai Letona bizi ziran. Laurak gizon jatorrak, burutsuak, Euskalerrria ta Bizkaia asko maite ebenak. Sabino Arana'ren lagun aundiak ziran. Bi geratu ziran an euren errian, eta beste bi Bartolome ta Xabier Bilbao'ratu egin ziran; Bartolome Deustu'ra eta Xabier Bilbao'ko diru-etxe batera. Euren alabakaz ezkondu ziran Kortadi ta Esparza eta Gipuzkoa'ko Garin, Letona'tar Xabier'en alabeagaz. Onein illoba Begoñatxu Urretxu'n bizi da eta gabonetan bere senide-agurra bialtzen daust. Erantzun be egiten daust. Ez dot jarraituko senitarte onegan, Deustu'tik aldendu ez nadin.



DEUSTU'KO PELOTA-LEKUA 1887'nn EGIÑA.

Goazen Deustu'n birritan alkate izan zan L. tona'tar Bartolome'gana. Onek bere zartzaroan Henao kaleko 56n. zenbakian, aukeratu eban bizilekua. Ementxe eldu zan zorionez beterik 100 urtera eta Jainkoaren eskuetan il zan Begoña'ko Ama'ri Agur Erregiña abesten. Ementxe bizi dira oraindiño bere illoba bi gitxienez.

Baiña goazen barriro Deustu'ra, idaz-lan onetarako artu dodan gaia amaitzeko.

Deustu ingurua gazte ta argitsua da eta bere giro alaitsu onek ikasle gazte asko erakarten dau beragana. Antxe dago Jesus'en Lagundiak eskatuta, Kubas'tar Franzisko etxegille jaunak egin eban Ikastetxe Nagusia. Ikastetxe onetako geletatik gizon jakintsu ta garrantzi aundikoak urten dabe.

Deustu'ko gaste-taldeak lan egiten dau Luzarro merkatari-tokian. Antxe erutzen dabez itzaldiak eta abestaldiak eta, oraingo lanerako garra danez, drogearen aurkako aletin-ekintzak. Talde bat sortu dabe, "Deustua euskera dariola". Joango al dira batera berbak eta giteak!

LETONA'K

## KRISTAUTASUNA ETA EUSKALERRIA

Zer da mitoa?

Izanik gabeko esanak. Izana ta esana ez dira biak bat izaten berez eta nai ta nai ez...

Kristautasunak ondatu du Euskalerraren jator-tasuna.

Orra topiko ta mito berri bat.

Egia dan ala ez, ajolik ez guri. Esatea naikoa da sinisteko. Bai, Urliak esan omen du; Berendiak idatzi omen du... ta naiko degu, beste gabe, sinis-teko...

tautasuna erakutsi zigun euskaldunoi indar oiek ez zirela jainko; berezko indar batzuek baizik: beuren legeetan zebiltzen indarrak... Ta oien gaiñetik ze-goela beste Izaki bat, ziren guzien iturburu ta oi-ñarri... Egi orretatik sortu ziran jakintza guziak: munduko indarren legeak aztertzeke atea iriki zitun kristautasunak Euskalerrietan...

Alaz ere, ez zituen oitura zaarrak erabat galdu; badeinkatu zituen kendu gabe ta or eldu dira gure-garaiño Kristautasunaren tolesteetan...

\*\*~

Euskalerraren jatortasuna zer da?

Gure aurrekoak leize-zuloetan bizi ziran: eizta-riak ziren... Marrazkiak egiten zituzten koba-illun-beetan... Sorginkeri edo aztikerietan ibiltzen omen ziran... Orain amar milla urte.

Geroago Europara Indaoeuropeok sartu zira-nean, aietatik zenbait oitura ta pentsakera artu omen zituzten... Beti izan ditu artu-emanak Euska-lerriak bere ingumariko erriekin. Animismotik ge-biltzan garai auetan, aztikeririk galtzeke.

Zortzi milla urte pasako ziran bitartean, erroma-tarrak guregana eldu ziraneako: kipula, porru, sar-tagi, tolar, ari, arto... Izen oiek aiekin batean edo etorriak ditugu... Zenbait siniskeri ta oitura ere bai, itzekin batera... Illeta oiturretan ta abar...

Kristautasuna etorri zitzaigun ondoren. Eta onek ekarri zigun aldaketa aundia pentsa-moldee-tan, batez ere. Ordurarte aztikeria ta animismoa ziran buruen jaun da jabe. Izenak badu izanakin berezko lokarri bat eta izena menperatzen badet, izana ere menperatuko det (zion Aztikeri edo Sor-ginkeriak)... Kristautasunak erakutsi zigun euskal-dunoi ez dala naikoa izena edo gauzen irudia men-peratzea, izen eta irudi oien izana (errealitatea) menperatzeko... Ta ori egi galanta da.

Animismoak, berriz, munduko indar guziei anima bat esartzen zien barnean: eguzki, illargi, ibai, mendi, baso, oian, odei, itsaso, oñezkar, ortzi, iturri... Ortik sortu ziren jainko txiki asko... Kris-

Egizak on eta oker-bideetik alde, zion euskal-dunen biotzak. Bazituen Mari'ren agindu batsuek ere... Oiek denak Kristautasunak, argi geiagokin eta xeetasun aundiagokin, erakutsi zien euskaldu-nari: maitasunaren agindua, amar mandamentue-tan argitzen dena... Kristautasunaren okerrik aun-diena euskalduna gizon jator biurtzea izan da. "Buskaldun fededun" egia izan dan arte, euskaldu-nak predikamentu aundia izan du mundu zabalean. Euskaldun izatea naikoa zan Ameriketn gizona onartua izateko: dokumenturik ederrena, euskal-izena... Izenakin bazan izana ere... Berez...? Ala Kristautasunaren egitez...? Dana dala, euskaldun aiek fededunak ziren. Fedeak eragiten bai dio gi-zonari jator jokutzen.

Fedea galdu ala, ari gera jatortasuna ta izen ona galtzen.

ANES 1972



## KONDAIRA

# EUSKAL-ERRIKO OLAK

Olak ziran denbora bateko burnifabrikak.

V'garren gizaldirako ba ziran Euskal-errian.

X'garren gizaldiratik aurrera artu zuten gerora izan zuten indarra ta garrantzia.

XV'garrenian ba ziran Gipuzkoa ta Bizkaian 300 (iru-reun) ola baño geiago. Ola aietatik sortutako burnia fama-tua zan bai Iberia guztian, ta Auñamenditik beste alde.

Euskal-erriko olen antzekoak ziran Kataluniako "farga" k ere. Gizaldi artan ba ziran Katalunia'ko Auñamandiko ibai zulotan 150 (eun de berrogeta amar) farga baño geiago.

Euskal-erriko oletarik eta Kataluniako fargetatik irtezen zan Kastillara zijoan burnia, Toledoko Capilla Mayorreko burni-ezia, edo ta Granadako Capilla Realekoa egiteko... Baita Toledo'ko armak ere burni orrekin egiten ziran; bai ezpata, bai mandoble, bai estokeak ere...

XIX'garren gizaldian galdu ziran olak gure errian. Olakin batera beste gauza asko ere galdu ziran eunki orretan. Burrukak ekarri ziguten ondamentia Euskal-errira...

## OLA AUNDIAK

Erreka bazterretan zeuden, uraren indarraren bidez lan egiteko. Su-labea, mallu aundia ta bi aspo zituzten ola bakoitzak.

Bi kurpil edo errueda urak erabiltzen zituan. Kurpilla, berriz, mallua ta aspoak erabiltzen zituzten.

Olaren tresna guziak zurezkoak ziran, malluaren burua ta txingudia kendu ezker.

Kurpillak ematen zioten indarra ta bizkortasuna bai malluari, bai aspoeri ere. Zenbat ur pasatzen zan, ainbat indar ta bizkortasun.

Mea edo minerala burni biurtzeko, egur-ikatzarekin berotzen ziran labeak. Labearentzako aizea bi aspoak ematen zuten. Narruzko aspoak ematen zuten. Narruzko aspoak, ala ere.

Labetik ateratako burniak "agoia" zuan izana, Zikin-xamarra: errautza bai zueen geiegi. Zakar aiek kentzeko mallu aundiarekin jotzen zuten agoia.

Orrela burnia garbitu ondoren, berriz ere malluarekin jotzen zuten, berotu bat emanda gero. Burnia luzatu ta zabaldu, bear zuten eratan, merkatura eramateko.

Ola bakoitzean bi langille taldek lan egiten zuten. Talde bakoitzak bost lagun zituan ta gañera laguntzalle bat. Laguntzalle bakarra bi taldearentzako.

Taldeak alkarrekin aldatzen ziran, bata bestearen ondorea. Etenik gabe. Gau ta egun.

"Urtzailleak" zuan labearen kontu.

"Teleak", malluarena.

"Peaillea" zan bestien laguntzallea: Onek ekartzen zuan ikatza ta mea laberako. Orretaz gañera, giltza baztuen bitartez, aspoen eta malluaren bizkortasuna ta indarra, bere mende zeuden. Giltza iriki edo itxi, ieieak esaten zion erara ta modura. Zenbat ur, ainbat indar.

Mea labean sartu, berotu, burnia atera ta jo malluan: ori zan talde bakoitzaren lana. Lan ontan bostak ekiten zioten alkarrekin. Lana bukatzean, sartzen zan bigarren taldea. Laguntzallea etzan aldatzen. Onek bere deskansua, tarteka, bestien lanak libre uzten ziotenean, egin bear zuan.

Udaran, errekek agortzen ziranean, orduan ekarten zuten urterako bearko zituzten ikatz eta me edo minerala.

Ola-gizonak olan bertan zuten bizibidea. Etzuten bertatik irtezen ez gau ta ez egun. Jan da lo bertan egiten zutelarik. Bakar-bakarrik larunbata gabean irtengo ziran olatik jai arratsalderarte.

## OLA TXIKIAK

Mendi gallurretan zeuden. Labea mellurik gabe. Asporik ere ez. Aizea mendi gallurrak zekarrena sartzen zuten labean tubo batzuen bitartez.

Labetatik ateratako agoia, zurezko mazo aundi batzuekin jotzen zuten, errautza ta zikiña kentzeko.

Agoi ori, gero, ola aundietara eramaten zuten, lantzeko: zapaldu, luzatu, borobildu...

Euskal-erriko olak, Katalunia'ko fargak ziran.

Agoiari "massers" deitzen zioten. Malluari, "Mall", ta olari, "farga".

X'garren eunkian Kataluniako Auñamendietan (Pirineoetan), sarkaldean, erri euskaldunak bizi ziran. Eunki orretan euskera galdu ta katalanez ikasitako ballara ba omen zan.

Euskerazko kutzuak ba ditu oraindik ere alde arrek, parte arrek.

Ez aldago iguru aietan "Valle de Aran" izeneko ballara? "Aran" itzak ez al du "Valle" esan nai?

Olak eta fargak ez ote dute jatorri berdiña.

ANES





## RONDA KALEAN

Larraoetxea'tar Franzisko nire lagun aundi bat da. Arreba bat eukan Londres'eko egazkiñetan zereginduta eta egazkiñen zorigaitz negargarrian il jakon. Izan nintzan Begoña'n egin jakon illetan, Larraoetxea adiskideari eta onen eskon-anai zan Londres'tarrari atseka-bean laguntzen.

Gure Larraoetxea'k, euskalzalea izanik, Bilbao'n jaioten diran askok lez, ez eban ikasi euskerarik bere ume-arogan. Gizon eginda, arazo askotan sartuta egoala, asi zan euskera ikasten, baiña buruan sartu jakon batua ikasi bear ebala, eta nik bein eta barrero, lenengo bizkaieroa ikasteko esan arren, berak batua eta batua esaten eban, euskaldun guztiok bat eginda bizi bear dogulako.

Saltoki eder bat dauka, zazpi edo zortzi langillek laguntzen dautsoela. Oneitariko batek joan dan urtean artu dau zar-saria eta gertakizun au berarizkoa dalako, idazlantxu onetan oroimena, gomutakizuna, egingo dautsagu. Zor jakola uste dot.

Juan Jose Ortega Blanco Bilbao'tarra, zazpi kaleetako Korreo kalean dan saltoki baten zutunik egon da berrogei ta amar urtean sal-maiaren ostean.


Larraoetxea'tar Frantzisko'k aukeratu eban begiz jota, dendako lanetarako. Zelako aldea orduko alogora gaurkoagaz bardindu ezkerok! Ortega'tar Juan Jose'k artu eban lenengo alogora, kontu-liburuetan agertzen dan lez, 45 pezetakoa izan zan, ez geiago. Bear ba'da beste langilleren bat izan leiteke 50 urteko ekiñaldia bete dauana. Eurok bai leialak eta laguntzaille esane-koak Larraoetxea'rentzat. Eta Juan Jose'k autortzen dau pozik eta atsegiñez egin dauala beti lan ori. Berak zazpi kaleetako denda oneri berea ba'litz lez begiratzen dautso eta orrelantxe maite dau. Zar-saria eldu jakonean, bagillaren ogei ta laugarren egunean, zeregin onetan jarraitzeak asko ez dautsola balioko etxeari uste izan dau.

Orduko aldietan beste askok lez, Ortega'tar Juan Jose'k mezulari-lana asi eban: "iru mezulari gintzazan -diñosku-. Etxeetara laguntzak eskintzen dei egiten euskuen, baita Ipar-Geltokira be. Urte orretan gure urrutizkiñak 11503 zenbakia eukan". Sarri askotan Aretaraiño joan bear izaten eban arkondaren sama almidoiduak eroaten. Bein baiño geiagotan joan zan Eibar'era be ezer artu barik, egin bear zan lana zalako, baiña noizean bein eskupekoak artzen ebazan ugari alde guztietatik. Benetako burrukak egiten ebezan errialtxu bat emoten eban etxera salgaiak eroateko.

Amazazpi urte bete ebazanean, amaitu jakon mezulari-lana. Adin orretan bizarra kendu, korbatea edo xingola jantzi eta salmaiaren ostean bere lekua artzen asi zan gure Juan Jose: Erosleak ondo artu, aurpegi ona agertu, ara ta ona gelditu barik ibilli, baiña dana ondo izan daiten aspertu barik. Larraoetxea Frantzisko'gaz iñoz ezin zeitekean egon ezer egin barik. Lana ez zan ito-bearrekoa eta nagusia be ez gogorra, denda aretan etxeko giro pozgarria agiri zan.

Gaur egun, batez be, eunezko eta gaiñeko gauzak saltzen dira, geienetan gizonentzat, baiña orduko 40 urteetan gizon-arkondara ta andra-ator luzeak. Oialgaiak, lumakiak, bururdi bigungarriak, estalki lodiak eta etxean egindako jantziak saltzen ziran, baita ur-jantziak be. Il zan Larraoetxea'tar Frantzisko, oraingoaren aita, a estuagoa zan gaurkokeriz jatzten diran jantzi batzuk saltzeko. Geroago aren dendearen jabe dan semeri Pako esaten dausoe. Txikitatik izan dot lagun eta zer-kontau asko jatortaz burura. Bein baten aitak tabako-orria erreten aurkitu eban eta ez eutson asarre makala egin!. Pako nitzat adiskide ona da.

EG ILUZEK.



# EDER ARTEAN (BOLIBAR)

Egille ederren eskuak ezin dabe eder ez danik sortu. Guk beraz naiz Kosmos naiz Ludia deitu, ederra dozu naita ez; oldozkun eta pentsamentu au nik sarri erabilli oi dot bu-ruan, batez be ortuko zugatz arte liluragarrian.

Aurten, eta noiz ez?, Aste Santuz, esaterako, ainbat kotxe jentezbete abiatu zan euskal erritik kanpo, neuk be egin'dodaz egotaldiak jaiote-rritik urrin samar, baiña ez dot aurkitu neure jaiot-lurra eta etxea baiño obarik. Badau indar apartekoa jaiota laster artu genduan lur-arnaseak bai osasunerako eta bai bizipoze-rako.

Baiña ezagutzen ez dogu-lako, nik uste, zer barri baten billa goaz etxetik urrun, bear geunkena eta geiago geure aterpean euki-rik. Egia da, olako etxekoagaz gaiñ kanpokoak be txastatu nai ditugu. Alan be, lenengo etxekoa ta gero bestek.

Eder-azale dozu gizasemea, eta eder edo atsegin-billa doatzu kanpora be. Nun alan be edertasun geia-go? Ez noa arren aurka, ori ez baita saiaketa biurria. Nik au diñotsut, ori len-lenen beintzat etxean billatu bear dala. Orretaz ez da makala gure ingurua.

Lengo baten, opor-eguna zalata, Oiz-perantza ibi-llaldi bat asmatu gendun. Oiz-apian Urretxu, Ziortza, Bolibar eta Mibeko aizez igurtzi gura genduzan birikiak, eta goizeko bederatziak inguruan Urretxu-rantza artu genduan mendizale bik. Goitik zan ordu-ko Febu, egun eder bat asiran. Mide-kurutzak emen Muniketara eskoi, Mendatara ezkerrez guk zuzen-zuzen aurrera, Oiz-azpitik zear; laster giñen, troka zear, oker-unez betean, ikustoki lilluragarri baten. Oraintsu arte illuna zan toki au, gaur oso argia dozu, piñu illun barik; aurrez-aurre daukaguz Albiz, Men-data, Gernika eta Kantauri inguruko erri zoragarriak, eder be eder, Bizkargi ta Atxerre ur dirala. Atsedem-

leku au ederragotzeko, Jainko-zale danarentzat batez be, Andra Mariaren Ikono bat daukazu bide-ertzean, mosai-kotan; au Agur Mariz otoiztu ondoren, aurrera gu. Pizkat ibilliaz berton agiri jakun, eskumatik, kotxez be San Kris-tobalera igoteko bidea.

Berantza, Munitibar aldera, bide ederrez, piñadi zarratu-zarratuz zear Pausu bi eta Ganbe berton; etxe bazuk, so-loak eta lenagoko Erri-ikastola oraindik zutik. Kotxe batzuk agiri dira, jentea lanean, bei eta ardi... Beerago goazala, Gerrikaitz'ko eleizea ezkerre-tik. Eskumatik Munitibar, ber-ton eleizea, frontoia etxe pi-lloa eta Gernikarako bidea, eta

Aulesti'rantz ondoan jatetxeak eta abar dana eder eta begi-betegarri. Guk ortxe eskumatik artu eta aldatz-gora Markiñarantza doa bidea.

Aurrez-aurre daukagu Oiz mendia, ez aundi, ez txiki, baiña aberez eta ospez betea. Apur bat jatxirik, esker-aldera. Betik gora jagi bide bazaltxo batez, Madalen auzune gaintxokora daroa gizaseme jato-rrez jantzia bein edurra zala, Undurratik ara ezkon-du, an laborari bizi ta ildako Larrakoetxea baten ille-tetan izan nintzala dakart gogora, andik igarotzean.

An gorago, egoaldetik Oiz'ek etxe soillak eta mordotxoak agiri ditu, orkotxea zan nire aita jato-rriz, baita gaur munduan naikoa zabaldua dabilzan Onaindiar ugariak be jatorria antxe dabe: On Alberto Onaindia'k egin eban gerra-aurretik abizen argi orren jatorria.

Jatxi gara beraiño trokaz beste-aldetik Ziortza do-gula. Bolibar erria. Au ezker itxita, pizkat aurrera jorik, Ziortza'ra garoazan bidean gorantza artu dogu. Aspaldiko urteetan entzutetsu izandako Ziortza ori gain-gaiñean daukagu eder baizen jator, Oizmendia-ren babespe gozoan. Monastegiko ortu ta kanposan-tu orma ondolik eleiz-zutoñak aurrez-aurre genduza-

---

# IKASLE TXARRAREN DOTRINA

## (8.ko Nagusia)

---

Goizian goizik jagi ezinik  
izaten dodaz ainbat lan,  
eguneroko oitura ontan  
nik ezin dot segi olan.  
Aita ta amak esaten deuste  
ikasi eik badaezpadan,  
baina ni laster abrozitzen naiz  
liburuen mende eskolan.

Nik, eskolara asi orduko,  
jaso dot ainbat frakaso,  
eta etxian ori dala ta  
izan dot mila arazo.  
Zenbakiekin sekula santan  
ez nenbilen animoso,  
orrexegatik Matematikan  
ez naiz egoten eroso.

Matematika klase ugerra  
kiputz bat dabil emoten,  
danok klasera sartu orduko  
jartzen gaitu lan egiten.  
Jada aspaldi nekatu naiz ni  
gauza berdinak ikusten.  
Gure maisua obe legoke  
bera sortu zan Oñaten.

Egunero lez asi jaku gaur  
txapa ederra soltetan.  
Jende guztia aurkitutzen zan  
bere adi erdi lotan.  
Neure gustoko gauzak egiten  
asi naiz orri batetan,  
klase astunak arintzearren  
ibilten naiz ni bertsotan.

Gure maisuak tonto itxuraz  
zur dauko bere begie.  
Atzeko iladan egonarren ni  
adi ibili da ostie.  
Albora etorri ta momentuan  
esan deust: ona orrie!...  
Bertsok eiten arrapatu ta  
kalera bota nabie.

Bertsok lantzen ibilten naiz ni  
zorutzen egun eta gau.  
Klasean iru idatzi dodaz  
eta kalean beste lau.  
Bertso guztiak amaitu ondoren  
buelbaka astea akordau.  
Kalean lasai nenbilen baina  
amak ikusi egin nau.

Amagaz aurrez topo eginik  
arnasa joan jat kasi,  
klaseko ordua libre dodala  
ein deustat jakinerazi.  
Argi ta garbi berba einarren  
amak ezin deust sinetzi.  
Eskola itzi ein bearko dot  
eta biarrian asi.

Neure bizitzan izan dodaz nik  
makina bat gora-bera,  
eskolan notak egungo bere  
ez dodaz onak atera.  
Orrexegatik eskola itzi ta  
joan naiz lan egitera.  
Zortzi bertsotan esan nai neban  
jazo jatan gertaera.

ASIER LEGARRETA

# SOZIALISMOA BIZKAIA'N

Jakiña da P.S.O.E. deiturako erakundea Pablo Iglesias'ek sortu ebala España'n 1.879 urtean.

Eta U.G.T.?

Iru urte geroago, 1.882 urtean sortu zan Barzelona'n, urte aretan ospatu zan Langilleen Batzar Nagusi baten ondorenez.

Alaz eta esan geinke bere oiñarri eta araua ez zirala idatzi 1.918 urte arte.

Baiña ez zabaltzen asi barik egoalako.

Estatistiketatik dakigu 1.917 urtearen asieran 39 talde eukazala U.G.T.k Bizkaia'n, eta talde guztien artean 4.646 bazkide.

Zelan lortu eban erakunde orrek Bizkaia 'n sartzea?

Danok dakigu industriko iraultza lakoa egon zala Europa'n XIX garren mendearen lenengo zatian.

Eta orrek zer ikusia euki eban Bizkaia'n, batez be zotin eragin Bilbo inguruan egoan meatzetako (miñetako) aberastasunean.

Jakiña da Bizkaiko industria etxeetako industri txiki izan zala luzaro. Ala izan zan gizaldi luzeetan. Etxeetako burdiñola edo errementariak egozan emen. Baiña Bessemer'ek fosforodun ez ziran meazkiak erabilteko erabide bat aurkitu ebanean, orduan galtzairu garbi biurtzeko era billatu zan, eta len emengo burdiñoletako lan berezi zana, orrela altsu eta indartsuen gintza biurtu zan.

Eta erbestetarren eskuetan geratu. Ala sortu ziran Triano, Orconera, Franco Belga eta abar. Eskubide bereziekaz gañera.

Ba euken euren epe bat. 1.880 urtea ain zuzen. Urte orretan Bizkaia'n 2.684.000 tonelada meazki atara ziran eta euretatik 71.000 Barakaldo eta Begoña'ko su-tegietan landu ziran.

Orrek izugarrizko eragiña sortu eban Bizkaia'n. Bilboko ibar ertzean ainbat idustri laguntzaille sortu ziran. Gañera Bessemer'en erabidea Thomas'en erabidez erraztu zan eta orrek oraindik industri andiagoak sortzeko aukera emon.

Gañera, esaten danez, tren bideak sortzeak be garen andia emon eutsan emengo industriari.

Kontu egin tren bideetako legea 1.855 urtean agertu zala eta 1.862 urtean Bilbao-Miranda egin zala; 1.865 urtean Triano. Eta Nerbioi inguruan bertan jaso ziran lantegien artean 80 kilometrotako bideak sortu zirala.

Orrek gizon premiña andia sortu eban eta kanpoko jende askoren bertaratzea gertu.

Jenderik geiena Galizia, Kastilla erdi alde eta Kastilla ego aldetik etorri zan.

Ortxe egon zan emengo sozialismoaren oiñarria.

Etorrera orrek gizabide barria sortu eban eta ortik sozialismoa.

Ezaguna da gizonei jagokezan baiño baldintza bera-gokoetan etorten zirala. Beartu egiten zituen kapatazen eskuetan egozan barrakoietan bizitera.

Janariak be, nai ta ez, kapatazaren kontrolpean egozan kantiñetan erosi bear izaten zituen. Jokera orrek mesede andiak erakarten eutsezan kapatazei.

Norbaitek gogoratu lei: Eta Bizkai eta Euskalerriko jendea?

1.904 urteko agiri baten irakurten danez, kapatazak naiago eben euren menpean barrakoietan bizi bearra eukan jendea. Azken baten oneik onura ugariago emoten eutsen eurei, kapatazei, euren etxeetatik lanera joaten ziranak baiño.

Kanpotarrak nai ta ezko euken al eben tokian sartzea. Etxerik be ez egoan toki askotan. Ortik, nai ta ez, kapatazen babespean lan egin eta aren menpe eta baldintzetan jan, jantzi eta bizi bear.

Ortik laster sortu ziran asarreak. Ortik sortu zan langilleen lenengo oporketa, uelga, 1.890 urtean, La Arboleda'n.

Orrelako egoera baten, norbaitek itandu leike zelan konpontzen ziran kanpotarrak eta emengoan alkar arteko lanean.

Zela ala konpondu bear. Ori da erantzuna. 1.887 urtean egin zan erroltzetik dakigunez Bilbo inguruan 12.981 langille euskaldun ebiltzan eta 9.776 kanpotar. Barakaldo'n 2.593 euskaldun eta 1.998 kanpotar. Portugalete'n 894 euskaldun eta 662 erbesteko; Santurtzi'n 1.514 euskaldun eta 1.429 kanpotar; Trapagaran'en 892 euskaldun eta 2.543 kanpotar; Sestao'n 1.096 euskaldun eta 1.988 erbesteko.

Or ikusten da gizaldi orretan zelako arrakasta euki eban Bizkaia'n erbestetarren etorrereak.

## JAKINGARRIAK UGARITZEN

Gorago esan dogunez P.S.O.E. 1.879 urtean sortu eban Pablo Iglesias'ek Madrid'en. Emen Bizkaia'n zazpi urtera ezagutu zan. Facundo Perezagua izan zan emengo lenengo lendakaria.

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko ere. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orre-gaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gai-i.uierrr,hirL~~:gi; F1~?~,KF1~A7AT.F,,4K AT,KARTEA.

---

# EUZKERAREN ARERIOAK

---

Ez dira gutzi, alajaña!, bizi ta edestian barna gure izkuntza onek izan dituen arerioak, m beraren aurka, zer egiten jakin ala jakin gabe, gogor eta isituki ari-izan diranak. Eta arerio gutzi oyek zeintzuk izan diran ezagutzea egokia izango zaigulakoan nago, ain zuzen, oyen aurka jokatzeko bedeak, bide egokiak, zelangoak izan ditezken begiratzeko ta oyetan barna bipilki joateko.

Lenengoa etxean bertan sortua dugu, etxekoa zearo, zoritxarrez, betidanik eta barnetik bere lan zitala burutzen ari-izan dana, ta oindiño ere orrela jarraitzen zaiguna: euzkaldunen artean ain berezia dan zabarkeriz du bere izena arerio orrek, auzkerari buruz oso nabariturik ain zuzen agertzen dan zabarkeria, benetan guztiz ulerkaitza dan jokera deitoragarria. Bai, euzkera barnetik maite dugunontzat uler-eziña izan bear euzkerarekiko gure Erri' an egiazko ajola ez ikustea. Zergatik, baña ez izan gure erritarren artean Erri'aren bizia dan beren izkuntzari buruz zaletasun geyago? berez eta ororengan sortu ta bizi bear-izango litzaken maitasun aundi ta bizi-bizia? Ez da erraz, geron ustez, erantzun egokia aurkitzea ta, apika, azpegi batzuetan ikusi bear-izango litzake ori.

Ba-dirudi, gurean, beti, lekorekoa etxekoa baño obetzat artzeko oso emanak izan gerala euzkaldunok, lekorekoa izateagatik bakarrik, eta gaur bertan jokera ori edozertarako zabaldurik ikus diteke. Ondorioz etxekoa ezeztua geratu bear, eta orrengatik edo euzkaldunak sarri lotsatua agertzen dira euzkeraz egitean, bai ta erderaren aurrean etxeko izkuntza uzteko ta bere orde z erderaz ari-izateko yoranez beteta azaltzean.

Euzkera ez jakiñen izkeratzat artzeko edo izan da; aitzitik, erdera jakitunen izkuntza bezela, ta nai ez, noski, ez jakiña bezela agertzea. Orixe dala-ta, onela adierazi dute beren iritzi okerra, nunbait esaten: "Dakienak daki, eztakienak eztaki, Malkorre'ko zukurrak erderaz ez daki"; orra nor izateko izan bear dana, erdalduna, ta euzkalduna baserako bakarrik edo; erdalduna gizonen artean ari-izateko, euzkalduna abereen artean bakarrik, lotsagarria lez bere burua ikusteko.

Gero ikusiko dugunez, uste ori izateko, lekoretik eldu zaizkio orrela oldozteko kari batzuk, izpide aundiak bezela; ta noraño sartu zaigun gure artean

iritzi ori! Alegin aundietan barna agertzen dira guraso euzkaldunak beren semeek erderaz jakin dezaten eta, guztiz itsuturik, etxean guziak euzkeraz mintzatuarren, beren semeai euzkeraz egiteko debekatu diete, orrela beren alde jokatzan zutelakoan. Deitoragarria, egitan, jokera ori!

Etzuten ikusi gure aurrekoak gaur ain garbi azaltzen zaiguna, ta ez jakite ortan aurki diteke, ausaz, beren egite aren azalpen bat. Ez, etzuten ikusi euzkera euzkal-gogoari eutsi al dizayoken bide bakarra dala, ta gaur bertan ere amaikatxo ari dira ain argi dagoen ori ikusi barik. Etzuten ikusi euzkera uztean, itzean, Erria ere, Erri bezela, iltzen zala, Ludi'aren zear lege orokarra lez begira ditekenez; orrela edozein Erri'an berbera gerta ditekela oartzeko. Erri guztietan eta bakoitzean beren izkuntza beren gogoari eutsi dizayokena bide bakarra be izanik. Len ez baña orain bai, orain argi-argi agertzen zaigu jokera ori, ta orrengatik ezin uler dezakegu gure artean orren zabarkeri aundia.

Oso bearra izango zaigu, berez, egikera ori gogoratzea ta gogora-eragitea, bertan baitago, argi ta garbi, nolako bidea jarraitu bear dugun. Baña ori ikusi gabe ere naikoa izan bear-izango litzake euzkera euzkaldunen betiko izkuntza dala oartzea, besterik gabe, gure begi-niña bezela maitatzeko; ta ainbeste mendeetan barna gurean bizi-izan dala gogoratuz, berez sortu bear ere gure artean ilik ez geratzeko alegiñetan gogor ari-izateko gogoa. Onela, bederen, geron etxean bertan sortutako arerio aundia menperatzeko.

Orixe da, alegia, gure euzkeraren etsai aundiena, enurarik gabe. Baña badagoz lekoretik eldu ta eltzen zaizkigun beste arerio batzuk, eta ez gutxi arranpola! Erdera diran alboko beste izkuntzak ditugu etsai aundienetakoak gure euzkerarentzat; asi lateraz eta onen semeak diran prantzera ta españeraz jarraitzen gure izkuntza zapaltzeko erabilak izan dira mendeetan barna ta eten gabe. Alboko laterriek gure Erria menperatzen eta euzkaldunak alkarren artetik bereiztean, bakoitzak bere aldetik beren izkuntzak indarrez erabiltzeko beartu gaituzte zin-ziñez, xede berezienaz ere. Ondo ikusi dute gu berenganatzeko bide egokiena izkuntza izan dala, ta gogor eta isituki orixe erabil dute buru-belarri.

Orrela iñoiz ez dute utzi euzkera ikastoletan erabiltzea, ta erdera jarri digute ikasteko guziaren bide

Oargarri bat. Sozialismoa, Madrid'en lez Bilbao'n be, irarkoletako langilletatik edo euren artean sortu zan. Orren atzetik etorri ziran 1.888 urtean Argiñen elkartea (Sociedad de Obreros Canteros) eta beste bat 1.890 urtean, Nasako eratzaille-zamatzaileak. (Moldeadores y cargadores del muelle).

Orrelako joeretatik Bilbao, Estatu maillan, sozialista sutegi biurtu zala esaten da. Laster zabaldu zan erakunde ori Barakaldo, Sestao eta Erandio zear. Geroago Enkarterrira.

1.892 urtean sortu zan Sestao'n Galdaragilleen elkarte; Barakaldo'n Laba Garaietako langilleena; Erandio'n, 1.902 urtean, Mekanikari, doitzaille (ajustadore) eta tornuetakoena. Baiña lenago sortu zan Begoña 'n, 1.896 urtean, Agrupacion Sozialista deiturakoa eta onek garrantzi aundia euki eban Bilbao'ko kondairan.

Gizaldi barria astean, au da, gure gizaldiaren asieran, Madrid geratu zan alderdiaren sorleku lez. Urrengo Bilbao. Bigarren Batzar Nagusia, kongresua be, Bilbao'n ospatu zan. Eta batzar orretan erabagi gogor bat artu zan: Irakatsia (dotriña) alboan laga eta zuzen zuzeneango ekintzak egitea.

Batzar ori Dagonillaren 29'tik 31 bitartean ospatu zan.

Orduntxe erabagi zan urtero Maiatzaren lenen eguna ospatzea eta egun orretan ezin zan tokietan, lenengo jaijan agerkundeak edo "manifestapenak" egitea.

Eta orduntxe erabagi zan baita, kapitalistei, dirudunei indarra kentzen joan al izateko, urrengo auteskuntetatik asita, sozialista aldun gaiak aurkeztutea.

Batzar ori egin eta andik lau urtera asi zan kalareztzen La Lucha de Clases izeneko astekaria.

Bilbaoko Sozialista Alkartearen izenean agertzen zan. Bertan idazten eban euskeldunen artean Jose Aldekoa, Luis Agirre, Tomas Meabe eta Migel Unamuno agertzen ziran.

Graficas Grijelmo irarkolan ataraten zan asieran. Gero aldatu zan Tipografica Popular'era.

### OPORKETAK (UELGAK)

Gorago esan dot 1.890 urtean La Arboledan egin zala Bizkaiko lenengo geldialdia.

Zeatz esateko, gogoratu bear gendun Markiñarrak, ango errementariak, Errege Katolikoaren denporetan egin eban geratualdi bat emoten dabela Bizkaian eza gutzen dan lenengotzat.

Ori azalduta goazen darabilgun gaira.

Zergaitik izan zan La Arboleda'ko asarraldia?

Langilleak esaten eban bizi eragiten eutsezan txabola eta barrakoiak osasun kaltegarri zizala, eta eskatzen eban nai ta ez erosketak egin bear izaten zituen kantinak be kentzeko.

Eta ordu gitxiago lanean.

Ori jakiña, egosten asia zan opilla zan. Nai ta aitzakitzat Orkonera'tik bost lagun kanpora atara zituela-ta asi. Orkonera au zan alkarerik altsuena.

Geratualdia Maiatzaren 13' an asi zan eta laster zabaldu zan inguruko lantegietara eta ogei milla langille gelditu ziran lan-geldialdian.

Orrek laster ekarri eban agintarien erantzuna. "Estado de sitio" esaten dana agindu zan. Donosti'n egoan Loma general militarra bialdu eban Bilbao'ra, soldadu talde andi bategaz, bakea indarrez lortu eragin naian.

Esaten danez, Loma'k zentzuz jokatu ebalako ez zan odol ixurtze askorik gertatu ugazaben morroi eta bestelakoen artean.

Orrelako ekintzak beti ekarten dabe ondorenen bat eta orduntxe lortu zan langilleak nai eban tokietan lotarako ostatuak eukitea eta gura eban kantiñetan euren janariak erosteko eskubidea eukitea. Eta langilleak geiago nai ebena: Galerazo egin jakoen kapatazei kantinak euki eta janariak saltzea.

Orduen goraberan, eguneko amar ordu lan egitea erabagi zan, baiña urteko denboraldiak kontuan eukita. Au da, 9 ordu Azilla, Abendu, Urtarilla eta Otsaillea; 10 ordu Marti, Apiril, Irail eta Urrillea, eta 11 ordu Maiatz, Bagilla, Uztail eta Dagonillea.

Andik urte bira, 1.892 urtean, Meatz-toki guztietan egin zan geratualdia, toki batzutarako lortu zana danetarako zabaltzeko. Baiña oraingotan langilleak ez eban ezer lortu. Amabost egun geldi egon ondoren barriro lanean asi ziran, makurtuta. Eta gero, 1.894 urtean barriro, oraingoan laneko orduak gaitzat artuta eta ogi txarra emoten eutselako. Eta gero ia urtero, baiña konpañiak indar andiegi euken ezer lortzeko.

Ori da, beraz, sozialismo indartzeko Bizkaia'n egon zan giroa.

Beste gauza bat, au be jakingarria. Zegaitik deitzen eutsen orduan ona etorten ziran langilleei maketoak?

Askok egiten daben itauna da. Eta erantzuna, batzutan esanetan au: Ia esku utsik etorten ziran jendeak lan billa, maleta edo antzerako ezer barik, makutotxu batzutan euren gauzak ekartzela. Eta ortik, "los del macuto" tik sortu ei zan maketoak ditura geratzea.

ZUBIKARAI TAR AUGUSTIN

# UZTURRE: SUSTRAIEN BILLA

Intxausti' tar Jesus jaunaren alboan jesarri naz eta antxe igaro dodaz orduak, ez dakit zenbat, berba ta berba.

Ni Markiña'koa nazala esan dautsadanean, beingoan itzi dau erdereza eta euskeraz berba egiten asi gara. Berak poza agertu dau bide zabal batera sartu gara uste dauala.

Alkar-izketea erreza izan da. Jesus'egaz berbetan, gauza erreza da Euzkadi' ren kondairara sartzea eta kondaira gazte askorentzat gauza bizi-bizi biurtu jaku.

Zelako sakontasuna aren gomutakien osiñean! Zelako ametsak, oarikasiak. Bizitza luzea daroa bere ganean, testigantzaz, neke-artzez negarrez eta pozez betirik dagoan bizitza! Berau dogu gure kondairaren milla orrialdeetan benetako lekua.

Gipuzkoa'ko Tolosa'n eta 1912n. urtean jaio zala gogoratu daust, Tximelka eritxon sagardautegian, eta antxe bizi izan zan gudara arte. Intxausti'tar Jesus'ek Leunda'tar Fausto'gaz batera, zeregin aundi bat bete eban Jaurlaritzaren barruan. Ez dot aitatu urte bateko epea baiño, Bilbao galdu artekoa, edo apur bat geiago bear ba da, Iturriotz edo Truzios'era arte.

Intxausti'tar Jesus eta Leunda'tar Fausto Eusko-Jaurlaritzaren lenengo itzultzaileak izan ziran. Onein aurretik Enbeita'k bete eban zeregin ori.

Gauza ederra izango zan, emen gure artean gaur Fausto izatea. Aren jazoera asko gogoratuko eutzuzan, baiña orain urtebete ta erdi il zan. Izlari guztiz ona zan.

Eurak itzuli ebezan euskerara Agirre'tar Joseba Andoni' ren izaldi, agerpen eta lan guztiak. Guztiz irakurgarria da Lenengo Jaurlaritzaren Aldizkari Nagusia. Gaur dana dago iru aletan batuta eta egunkariak, bilduma guztien artean, gogoangarriak dira.

Apur bat atzerantza begiratzea da. Lan astuna daroan Agiri Nagusia. Ez jataz aitzuten Aldundegian igaroten genduzan amaibako egun luze areik. An egiten gendun itzulketa ta zuzenketa-lana eta irarkolarako gertakuntza. Gure alegiñak berbak zeaztuteko eta argetzeko eta esaldiak ulerterrez biurtzeko! Ez geunkan iztegirik. Orregaitik lan aundia egin genduan sustraiak billatzen.

Berak eukon euskerearen ezagutze sakona, garbitu eta sendotu egin eban Intxausti'tar Jesus'ek, Tolosa'ko lekaide-etxean nagusi zan Iruarizaga'tar Jerbasio'gaz. Berak diñost, gaiñera, Lizardi'tar Xabier eta Labaien'dar Antonio M<sup>a</sup> maixu on bi izan ebazala..

Agiri Nagusia itzultzeko lanean asko lagundu euskuen Gorostiaga'tar Juan'ek eta Etxegarai'tar Karmelo'k. Ez zan lan erreza, politika-giro nastatu aretan.

Zalantza barik, konturatuko da irakurlea aldi barrietan oikera diran erderazko itzak euskerara itzultzeak zelako gaiztasuna daukan. Ez da erreza oraintsu sortuak diran gauzai itzulpen egokia ezartea. Esaterako arduraleku eta erakunde barriai eta abar.

Gure lenengo lanerako jokabidea, sustraiak billatzea izan zan. Mezuai euskal kutsua sartzen alegintzen giñan. Benetan nik auxe sinisten dot eta uste dot: Gure itzulpen-lanak errez ulertzen zirala. Euskerearen joskerea aldatzeko arriskua aundia izaten da. Erderako itzasko erabilten dira, baiña arriskua, izkuntza lez dauan bizitasuna galdu dauan euskerea erabiltea da eta ori jazoten da gaur. Euskeran bertan sustraiak dauzan euskerea indartu bear da.

Eta jazoera bat gogoratu eustan: Eugenio D'Ors'ek, idazki bat idatzi ondoren, bere idazkariari emon ei euston ondo ulertzen ete zan itauntzeko. Eta erantzuna, baietz, ulertzen zala, izaten zanean, idazleak berba traktetsagoak eta illunagoak billatzen ebazan irakurketa gaxagoa izan zedin.

Lanak asi genduzanean, geu eguneratu-bearra izan genduan. Ez zan gauza erreza albiste ta itzaldi areik euskera argi zabaltzea eta euren mamiña zintzo eta zeatz iragartzea.

Jesus k bere bizitzako zertzelada batzuk edestu daustaz. Gernika'ko bonbaketa, esterako. Au berak bere begiakaz ikusi eban plazako arkupeetatik eta babespe baten barrutik. Bera bitan zelan espetxeratu eben edestu daust. Gero Paris'en igaro eban erbeste-aldia, arik eta Agirre Lendakaria il arte. Bruselas'en, OIT-inguruan lankide lez igaro ebazan ogei urteak, illeroko aldizkaria eta Lanaren Munduko Alkartean astero agertzen ebazan barriak.

Euskadi' ren kondairan aldi asko dagoz illunetan, bear daben jartortasuna eta egia eurai ezarri barik. Lan ori aztertzaile ta egibideko burutasunakaz egin-bearrekoa da.

Jesus lankide on bat dogu "Euzkadi" aldizkarian. Bere gizontasuna ta ontasuna onuragarri izatea billatzen dot. Izan be, amairik ez dauken gomutakien, oar-ikasien eta ametsen osin sakona da.

Bere adiskidetasuna omengarri da nitzat.

OLAZAR'tar Martin'ek  
"EUKADI" 212'tik  
Euskeratu ta egokitua.  
(Idazlea: Koldo Lizundia)



BIZITZAREN KANTUA

Lenen lenengo aitatu nai dot  
 Egillearen izena,  
 nor egin leike ikusten dogun  
 lurraren edertasuna! !!  
 mendi ta zelai eta itxaso...  
 au da gure zoramena,  
 alde danetik agertzen jaku  
 jakituri ta almena.

Zein aundia dan kristau fedea  
 izadiaren aurrean,  
 egiñetatik ateraten dau  
 nor dan Jaubea lurrean;  
 berezkorikan, emen, ez dago  
 edertasunen artean,  
 gizon almenez goitikan dago  
 Jaungoikoaren menpean.

Euskalerrira begiraturik,  
 oparo dago lur dana,  
 arkaizak, gogor, agertzen dabe  
 gizonen lerdentasuna;  
 ibar-zelaiak opaka dagoz  
 orlegiz itxaropena,  
 euzko bizitza, emen, sortu zan,  
 izanik lur jatorrena.

Lur eta gizon elkartu ziren  
 Aitorren aldi aretan,  
 euskal mendiak emoten eutsen  
 gizonei jitte benetan;  
 lurak sendoak, alan semeak,  
 bulartsu, beti, lanean,  
 jakituria artuten eben  
 gizonak eurenlanetan.

Lur malkarretan lana egiñez,  
 sortu eben Aberria,  
 gizonen soiña azur tankeraz  
 eraturik antzekoia;  
 euren arteko gora-berekaz  
 sortuz bizitz iturria,  
 bizitz bardiñaz eratu eben  
 euskal odol berezia.

Euskaldunaren gizontasuna  
 izan da arrigarria,  
 bera dabillen toki guztian  
 zabalduen dau argia;  
 epo direnak, ezin ikusi  
 zentzundun indar bizia,  
 zeru ortzeko izar argiak  
 dira euskaldun jendia.

Euskal jendea, beti, izan da  
 erantzupen aundikoa,  
 esku lanetan ez jako jausi,  
 iñoiz, beraren gogoa;  
 buru bearrak argitu dautso  
 beren egizko asmoa,  
 ekin ta jarrai, aurrera doa  
 enda berebizikoa.

Egia dauka bere goiburu  
 Euzko Jaurlaritza argiak,  
 Euskalerririk bear ditun lez  
 gizon jator ta trebiak;  
 alde danetik, marmar, dabilzaz  
 euskaldunaren etsaiak,  
 baiña, zu, zutik, joango zara  
 jarraituz zure bideak.

Euskal ertzaiñak agertu jakuz  
 Euzkadiren izenean,  
 zentzun aundiko neska ta mutil  
 erri lanaren aurrean;  
 gizontasunez zainduko dabe  
 bizia gure artean,  
 zorioneko gazte leialak,  
 zatoze ordu onean.

PAULIN



## MARX, JESUS ETA BURGESKERIA

Bien artean 1800 urte. Alde aundia biak berdin izateko.

Jesus'ek: neba-arrebak zerate Aita bakar baten seme-alabak zeratelako.

Marx'ek: Anaiak gera eta tximiñoen lengusu, materia utsetik sortu geraldako.

Eta abar...

\*\*\*

Euskalerriko semeak, kristau zaarrak, Kristautasuna zapuztu ondoren, ateismora jotzen ari dira...

Ori, guzi ori, Burgeskeriaren aurka.

Burgeskeria zaku zaar aundi bat dezu, konbeni ez zaizkigun gauza guztiak bertan sartzeko:

Kristautasuna, burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-ikastola (guk geok erabilten ez ditugunak) oiek burgeskeria dituzu...

Zenbait euskal-aldizkari, burgeskeria dituzu...

Euskera bera ere (nolakoa dan) burgeskeria dezu...

Zenbait euskal-alkarte (gureak ez diranak) burgeskeria dituzu...

\*\*\*

Burgeskeriaren aurka amorratuta, baiña **itzez** bakar-bakarrrik.

**Egitez**, ordea, burgeskeriaren alde: aotan ainbeste dezuna, kolkoan palta, alegia. Ez nijoa gauzak banan-banan aztertzeraz, ez. Goiko malla batean geldituko naiz.

\*\*\*

Gizarte burges-aberatza **berez** atea da: aberastasuna bait du burgeskeriak elburu bakar. Gizarte-aberatza berez ateo eta berez burges.

Marxismoa ere atea da.

Emen alkar jotzen dute Marxismo eta Burgeskeriak.

Marxismo ateoak, beste aldetik berriz, erri pobreak aberastasunera eraman nai ditu eta ori lortzen duanean, orra Marxismoaren ondoren, gizarte aberatza atea, burgesa ura ere... aberastasunak eramaten bait gaitu burgeskerira.

Guk asiera nundik degun Burgeskeriari ajolik ez. Baiña, nora goazen eta zertarako geran, orrek bai, orrek ajola aundia ematen dio Burgeskeriari... Zertara-

ko geran...? Dirua sortzeko, onurea sortzeko, irabazia ateratzeko...

Burgeskeriaren elburu bakarra, urrea.

Bitartean Jainkoaren izen ona ondatzen dala...? Ajolik ez.

Gizonaren izana ondatzen dala...? Ajolik ez,

Izadiaren giroa ondatzen dala...? Ajolik ez.

Dirua eta irabazia, besterik ez dago emen.

Eta Marxismoak zer...? Marxismoari gure sortzerako iturburuak kezka ekartzen diote eta erabakia artuta dauka: materia utsetik sortu gera gu.

Materiatik sortu bagera, materia degu elburu, gu sortzean besterik ez zalako. Eta materiari materia urrea degu: onek bait du pixua aundi eta kolorea eder...

Urrea, Burgeskeriak bezela.

Urrea, onurea, irabazia, orra **berez** ze elburu agertzen diran... Beste elburuak kanpotik erantsita daude, eta zenbait Kristautasunetik artuak, millatik goraka urte zituan Europa kristauan sortu bait zan Marx eta bere Marxismoa.

Orra nun Marxismoak eta Burgeskeriak berriz ere alkar jotzen duten: biak ateo eta biak materia elburutzat.

Biak alkar borobildu dute: Burgeskeri ateotik Marxismo ateora, Marxismo ateotik berriz ere Burgeskeri ateora...

Kaiolan sartuta gaudela, alegia, arratoia bezela.

\*\*\*

Kaiola ortatik irtetzeko Marxismoari (al bada) gora dijoan atea iriki bearko zaio: materia utsezko atea besterik ez badu, ate ortatik, berriz ere, gizarte ateo aberats burgesera goaz...

Materia utsa jaun da jabe. Jainkorik ez, espiriturik ez.

Marxismoa eta Burgeskeria alakarren osagarri, alkarri lotuta ateismoaren ardatzean, jira ta buelta, beti berean...

Kristautasuna tesis bada eta Marxismoa antitesis, sintesis bat billatu bearko, edo Kristautasunera berriz biurtu.

ARRINDA'TAR ANES (1972)

# IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko  
Kutxa. Bere berbea bete  
eta zure bear-izanak  
ulertzen dauzan Kutxa.  
Etorkizunera zabalik dagoan  
Erakundea, etenbako  
gora-gogoagaz  
bere erriko jenteari  
Iaguntza-gai osoak  
eskintzen dautsozana.  
Beti dago zugandik ur  
izkuntza bakar baten  
alkar ulertu daikegun.*

**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

150 PEZETA